



COSPLAY ETA COSPLAY PASARELA LEHIAKETAK

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

1.1. Mangamore 2025ko Cosplay eta Pasarela Cosplay lehiaketak **aurrez aurre ospatuko dira urriaren 11n** (larunbata), **17:30etik aurrera, Zelaieta Zentroko frontoiko agertokian.**

1.2. Ez dago parte hartzeko gutxieneko adinik, baina **18 urtetik beherakoek aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena izan beharko dute parte hartu ahal izateko** (1. eranskinean dago bete beharreko dokumentua).

Bestalde, 12 urtetik beherakoek, 16 urtetik gorakoek lagunduta parte hartu beharko dute, betiere, aitak, amak edo legezko tutoreak baimendurik, honako modu honetan:

- **Cosplay Lehiaketan taldeka parte hartu ahal izango da**, 16 urtetik gorako pertsona batek eman beharko du izena.
- **Cosplay Pasarelan 16 urtetik gorako beste pertsona batekin desfilatuko da.** Hala ere, adinaren arabera, bakarka ere desfilatu ahal izango da, baldin eta hala erabakitzen bada aita, ama edo legezko tutorearen eta antolatzaileen artean, posta elektronikoko bidez.

Era berean, 12 urtetik beherakoek beti egon behar dute euren aita, ama edo legezko tutorearen edo baimendutako adin nagusiko pertsona baten laguntzaz.

1.3. Parte-hartzaileek bi lehiaketetako batean bakarrik parte hartu ahal izango dute:

- **COSPLAY: 20 plaza** egongo dira **banakako parte-hartzaileen eta taldeen artean** (gehienez 10 kide), **eta ezingo du pertsona berak parte hartu bi kategorietan.**

20 plazatik, 5 plaza erreserbatuko dira kategoria bakoitzerako, eta gainerakoak izena emateko hurrenkeraren arabekoak izango dira, 20 plazak bete arte.

Cosmakerrak eta Cosmodelek parte hartu ahal izango dute 2.2 puntuan azaltzen den bezala, eta Kategoria bakoitzeko gehienez 2 sari eman ahal izango dira 4.3 puntuan garatzen den bezala.

Gainera, **Antzeppen Aipamen Berezia** egongo da eta banakako eta taldeko parte-hartzaile guztiek izango dute sari hori jasotzeko aukera, aipatutako bi kategorietan saria jasotzen dutenek izan ezik.

- **COSPLAY PASARELA: banakako 30 parte-hartzaile** parte hartu ahal izango dute bi kategoria hauetako batean:
 - **COSMAKER:** laguntzarekin edo laguntzarik gabe beren cosplay-a egin duten parte-hartzaileak.

- **COSMODEL:** maileguan emandako, erositako, enkargatutako edota hirugarren pertsonak osorik egindako jantziak dituzten parte-hartzaileak.

10 plaza erreserbatuko dira kategoria bakoitzerako; gainerakoak izena emateko hurrenkeraren arabera izango dira, 30 plazak bete arte. **Kategoria bakoitzeko, 3 sari eman ahal izango dira, eta "Chibi Cosplay" Aipamen Berezi bat egongo da, 12 urtetik beharokoentzat, 4.3 puntuak garatzen den bezala.**

Lehiaketetako batean parte hartu ezin bada, ezinbesteko kasuetan izan ezik, gehienez ere urriaren 7ko (asteartea) 20:00ak arte jakinarazi beharko da.

1.4. Bi lehiaketetan, plazak beterik, erreserbako zerrenda bana sortuko da.

Plaza bat libre geratuz gero, antolatzaileak hurrengo pertsona/taldearekin harremanetan jarriko dira emailaz, eta gehienez urriaren 8ko 20:00ak arte izango dute parte hartzea baieztatzeko.

1.5. Bi lehiaketetako parte-hartzaileak laguntzaile bat eduki ahal izango dute, alde aurretik kontsulta egin eta erakundeak baimena emanda, lehiaketa osoan zehar, betiere kontuan hartuta erabilgarri dagoen edukiera. Beraz, laguntzaileek beren gauzak ekartzen, aldageletan prestatzen, bi lehiaketetan partaidearekin egoten eta abar lagundu ahal izango dute.

Halaber, **Cosplay Lehiaketako banakako nahiz taldeko parte-hartzaileek pertsona horren laguntza jaso ahal izango dute beren antzezpena gauzatzeko.**

Laguntzailearen bat eduki nahi izanez gero, izena emateko formularioan adierazi behar da edo, geroago, cosplay@mangamore.net helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz, **gehienez ere izena emateko azken eguna eta ordua arte. Bi kasuetan, antolatzaileek baimendu beharko dute.**

1.6. Lehiaketaren dinamika honako hau izango da:

Lehenik eta behin, Cosplay lehiaketa egingo da, eta parte-hartzaileek koreografia edo antzezpene bat egiteko aukera izango dute, beren aukerako musika eta/edo bideoarekin, kontuan hartuta antzezpene bat egiten ez bada alderdi hori puntuatu gabe geratuko dela. Antzezpenearen iraupena ezin da 2 minututik gorakoa izan bakarka parte hartuz gero, eta 3 minututik gorakoa taldean parte hartuz gero. Hala ere, kortesiazko 10 segundo gehiago onartu ahal izango dira, emanaldia amaitzeko beharrezkoa bada.

Antzezpene guztiak egin ondoren, **Cosplay Pasarela lehiaketa** egingo da. Bertan, parte-hartzaile guztiak banan-banan igoko dira agertokira, **antolatzaileek aukeratutako musikaren erritmoan desfilatuko dute (gehienez minutu bat) eta beren Cosplaya erakutsiko diete publikoari eta epaimahaiari.** Nahi izanez gero, **pose bat edo pertsonaiaren interpretazio labur bat egin ahal izango dute. Ezin izango da atrezzoak erabili.**

Parte hartzea sustatzeko helburuarekin, beste parte-hartzaile batekin edo birekin desfilatu ahal izango da, eta izena ematerakoan eskatu egin beharko da. Alabaina, izen-emateak, balorazioak eta sariak banakakoak izango dira, ez baitago talde-kategoriarik.

Desfilearen ondoren, epaimahaia eztabaida egingo du eta, ondoren, bi lehiaketetako sariak banatuko dira.

1.7. Parte-hartzaileek aldagelak erabili ahal izango dituzte 14:30etik aurrera eta, sartu ahala, parte-hartzea baieztatuko da.

Hala ere, urriaren 11n (larunbata), 11:00etatik aurrera, posible izango da norberaren gauzak aldageletan uztea, atrezzo muntatzea edo aldatzea, Zelaieta Zentroko Informazio Puntuaren eskatuz gero eta antolatzaileek baimena emanaz gero.

1.8. Cosplayak mailaka berrikusiko dira, ordena honetan:

- 15:15ean Cosplay lehiaketako parte-hartzaile guztiak.
- 15:45ean Cosplay Pasarelako cosmakerrak.
- 16:15ean Cosplay Pasarelako cosmodelak.

Parte-hartzaileek prest egon behar dute dagokien orduan prest egon beharko dira agertokian.

Berrikuspenean, epaimahaiak antzezpenean edo desfilean ikusi ez daitezkeen cosplaya egiteko prozesuaren xehetasunak bilduko ditu, baita karakterizazioa edo beste alderdi batzuk ere.

Berrikuspena egin ondoren, barrutitik kanpora irten ahal izango da, baina, gehienez ere, eszenatokiaren inguruan esleitutako eserlekuan egon beharko da 17:00etatik 17:15era, lehiaketak 17:30ean hasiko baitira.

Puntualtasuna eskatzen da. Ezarritako orduetan ez egotea deskalifikatzeko arrazoitzat hartuko da, justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

1.9. Aldageleta eta agertokirako sarrerak eta irteerak backstagetik egingo dira uneoro, argazkian erakusten den atetik.



<https://goo.gl/maps/KVTXf3wwSgYdUnD98>

1.10. Parte-hartzaile eta haien laguntzaile guztiak eszenatokiaren alde batean (ez frontoiko harmailetan) jarleku izendunetan banatuko dira, eta uneoro bete beharko dituzte antolakuntza-arrazoientatik eta gainerako parte-hartzaileekiko, bertaratuekiko eta gonbidatuekiko errespetuagatik antolatzaileek emandako jarraibideak eta arauak. Izan ere, ikuskizunak egongo dira bi lehiaketak baino lehen, epaimahaiak eztabaidatzen duen bitartean eta ondoren.

Horrela, esleitutako lekuetan eserita egon beharko dira, adierazitako bideetatik irten eta sartu beharko da, isilik egon beharko da, etab.

Lehiaketa amaitutakoan, esleitutako eserlekuetan geratu ahal izango da, baina 21:45ean, beranduenez, gauza guztiak jaso eta esparrutik atera beharko da.

- 1.11. Debehatuta dago pertsonen eta instalazioen osotasun fisikoa zikindu, hondatu edo arriskuan jartzen duten elementu guztiak botatzea** (material piroteknikoa eta sukoa, edozein motako ke-sorgailuak, lurzorua urratu dezaketen gaiak, likidoak, purpurina, konfetiak, lumak, etab.). **baita agertokitik kanpo objektuak jaurtitzea ere.**

Era berean, ezin izango dira erabili barrutiko sare elektrikorako konektatutako aparatuak, ezta sorgailuak edo bestelako edozein konexio-mota ere, ikus-efektuak, soinu-efektuak edo bestelako efektu bereziak sortzeko, hala nola laserrak, bozgorailu eramangarriak edo bateriadunak, etab.

Hala ere, trajeek, prop-ak edo atrezzoak sistema elektroniko eramangarriak (bateria txikiak) izan ditzakete, adibidez, argiekin efektuak, akustika baxuko soinuak, iraupen laburreko efektuak kearekin eta abar sortzeko.

Cosplay-a egiteko eta eszenaratzeko erabil daitezkeen elementuei buruzko zalantzarik izanez gero, antolatzaileei posta elektronikoz galdetzea gomendatzen da, baimena lortzeko.

- 1.12. Debehatuta dago agertokitik publikoarengana jauzi egitea, eta lehiaketak egiten diren bitartean ez da onartuko antolakuntzak desegokitzat, lizuntzat, iraingarritzat edo/eta beste pertsona batzuen sentsibiltatea kaltetzen duen jokabiderik, indarkeria, gorrotoa, diskriminazioa eta abar direla eta. Horrela, emanaldiak publiko guztientzat egokia izan beharko du.**

Ekintza horietakoren bat gertatuz gero, antolatzaileek beretzat gordeko dute egokitzat jotzen dituzten neurriak hartzeko eskubidea.

2. COSPLAYARI BURUZ

- 2.1.** Cosplayaren gaia erabat librea da, lehendik existitzen den pertsonaia edota karakterizazio ofizial batean oinarritzen den bitartean, **eta cosplayaren balioak transmitituz: cos (jantzia) eta play (pertsonaiaren interpretazioa).** Fanarts, gender bender eta crossplay onartzen dira.
- 2.2.** Cosplayei dagokienez, garrantzitsua da honako hauek kontuan hartzea:

- **Cosplay Lehiaketan, banakako edo taldeko kategorian sarituak izan ahal izateko, Cosplayak eskuz egin beharko dituzte banakako parte-hartzaileek, edo elkarlanean, taldeen kasuan.** Hala ere, osagarri edo zati aurrefabrikatuak erabili ahal izango dira, adibidez, ileordeak erabiltzea. Eta jantziaren garrantzi gutxiko elementuak egiteko laguntza jaso ahal izango da, baina berrikuspenean azaldu beharko da.

Bestalde, **erositako cosplayekin parte hartzen bada** (industrialak, enkarguzko artisauak, etab.), **Antzezpen Aipamen Berezia lortzeko aukera dago.** Cosmakerrak eta erositako jantziekin egindako cosmodelak dituzten taldeek ere jaso dezakete aipamen hori.

- **Cosplay pasarelan ere,** bai Cosmaker kategorian bai Cosmodel kategorian, osagarri eta zati aurrefabrikatuak erabiltzea ere baimenduta dago.

Bi lehiaketetan, parte-hartzaileek aukeratutako pertsonaiaren koloretako irudi bat eman beharko dute gutxienez, erreferentzia irudi gisa. Irudi horretan argi eta garbi ikusi behar da pertsonaiaren janzkera, epaimahaiak fideltasuna baloratu ahal izan dezan. Gehienez 5 irudi bidali ahal izango dira pertsona bakoitzeko.

- 2.3. Antzeko lehiaketa batean sariren bat irabazi duten cosplay batekin aurkeztu ahal izango dira lehiakideak, Mangamoreren aurreko edizioetako Cosplay edo Pasarela Cosplay lehiaketetan saritutako pertsonak izan ezik; pertsona horiek ezin izango dira bi lehiaketetan cosplay bereberkin aurkeztu, sarituak izan diren lehiaketa edozein izanda ere.**
- 2.4. Armen Araudiari buruzko 137/1993 Errege Dekretua betez,** erabat debekatuta dago parte-hartzaileek suzko armak, metalezkoak eta bestelako objektu sendoak edo imitazioak eramatea, baldin eta beren ezaugarriek benetako izaerari buruzko nahasmendua eragin badezakete.

Plastikozko, kartoizko eta beste material batzuetako armen imitazioak soilik eraman ahal izango dira, baldin eta haientzat eta ikusleentzat arriskutsuak ez badira. Zalantzarik izanez gero, mesedez, kontsultatu antolatzaileekin inskripzioen helbide elektronikoen bidez.

3. IZEN EMATEARI BURUZ

- 3.1. Izen-ematea online egingo da irailaren 19ko (ostirala) 20:00etatik urriaren 7ko (asteartea) 20:00ak arte, dagokion formularioaren bidez:**
- **COSPLAY:** <https://forms.gle/WSQLpKDZfy1fBMCy9>
 - **PASARELA COSPLAY:** <https://forms.gle/QHCVkv1GwzuEQbLN7>

Cosplay Lehiaketan izena eman nahi duten taldeek izen emate bakarria egin beharko dute.

Formularioa behar bezala betetzen bada, banaka edo taldeka izena ematen duen pertsonak erantzunen kopia automatikoa jasoko du erabili duen helbide elektronikoa. Zalantzarik izanez gero, harremanetan jar zaitezke egin den galdetzeko.

- 3.2. Izen ematea baieztatzeko, antolatzaileek mezu elektronikoa bat bidaliko dute cosplay@mangamore.net helbide elektronikotik formularioan adierazitako helbide elektronikora.**

Itxarote-zerrendan geratuz gero, adieraziko da.

- 3.3. Izena ematean, parte-hartzaile guztiek honako datu hauek ematea onartuko dute:**

- **Izen-abizenak eta jaioteguna** (kide guztienak taldeak badira)
- **Emaila** (taldeen kasuan, bakarria)
- **Telefono-zenbakia** (harremanetan jartzeko antolaketa-premiarik izanez gero; taldeetan, harremanetarako telefono bakarria)
- **Banakako parte-hartzaileen kasuan, generoa eta parte hartzea iragartzeko edo desfilatze erabiltzea nahi den izena (nick bat izan daiteke)**

Taldeek taldearen izena eta kideen kopurua zehaztu beharko dituzte. Nahi izanez gero, kide bakoitzaren izen edo nick bat adierazi ahal izango da.

Halaber, honako informazio hau eman beharko da:

- **Parte hartzen den lehiaketa:**
 - **Cosplay lehiaketan parte hartzen bada:**
 - **Parte-hartze mota: bakarka edo taldeka.**
 - **Mikrofonoaren erabilera:** antzezpena gauzatzeko beharrezkoa den zehaztu behar da.
 - **Audio/bideo fitxategia:** Fitxategiek VLC softwarearen azken bertsioan funtzionatu beharko dute. Mikrofonoaren zuzeneko erabileraren aurrean, ahotsak aurrez grabatuta egotea gomendatzen da.

Antzezpena egiteko audio edo bideo-fitxategi bat behar izanez gero, **Google Drive-ko karpeta baterako esteka eman ahal izango da.** Esteka hori ematen ez bada, antolakuntzak karpeta partekatu bat sortuko du eta esteka baieztapen emailean jakinaraziko da.
 - **Pasarela Cosplay Lehiaketan parte hartuz gero:**
 - **Kategoria: cosmaker edo cosmodel.**
 - **Cosmodelak adierazi beharko dute beren cosplay-a industrial edo artisau-jatorrikoa den (bigarren kasu horretan, dosierra aurkez dezakete).**
 - **Beste parte-hartzaile batekin edo birekin desfilatu nahi izanez gero, nor diren adierazi beharko da, eta posible izango da pertsona guztiek plaza lortzen badute.** Ahal izanez gero, antolatzaileek posta elektronikoz jakinaraziko dute.
- **Pertsonaiaren izena eta jatorria** (anime, manga, bideojokoa, etab.).
- **Aukeratutako pertsonaiaren** janzkera argi agertzen duen kolorezko **irudi bat (derrigorrezkoa).** Hori gabe epaimahaiak ez du zehaztasuna baloratuko. Gehienez 5 pertsona bakoitzeko.
- **Dosierra (aukerakoa):** Parte-hartzaileek, nahi izanez gero, cosplay-a egiteko prozesuaren, props-en eta abarren argazkiak eta azalpenak jasotzen dituen txosten bat bidali ahal izango dute (gehienez 5 orri alde bietatik pertsona bakoitzeko). Epaimahaikideen lana errazteko, aurkeztutako irudiek kalitate nahikoa izatea eskatzen da.

Jasoko diren dosierrak inprimatuta eramango ditu antolakuntzak, baina beste formatu fisiko batzuetan (koadernatuta, kartoi mehean inprimatuta, etab.) entregatutako dosierrak onartuko dira. betiere aldez aurretik bidalitako edukia errespetatzen bada eta emandako testua edo erabilitako argazkiak aldatzen ez badira. Dosier horiek cosplayak berrikusten diren bitartean emango dira.
- **Aldagelen erabilera:** Antolaketa-arrazoiengatik, eskertzen da aldez aurretik jakitea aldagelak erabili nahi diren eta 11:00etatik aurrera edo 14:30etik aurrera sartu nahi den.
- **Laguntzailea:** Beste pertsona baten laguntza nahi den jakitea.
- **Zalantzak:** Lehiaketa egin aurretik edozein zalantza azaldu eta argitu dadila eskatzen da.

GARRANTZITSUA:

- Cosplay Lehiaketan parte-hartzaileek audio/bideo-fitxategiak edo dosierra (aukerakoa) eman ahal izango dituzte, bai izena emateko formularioaren bidez, bai antolakuntzak konfirmazio-emailean emango duen Drive karpeta baten bidez.

Bestalde, Cosplay Pasarela Lehiaketako parte-hartzaileek, aukeran, dossier bat eman dezakete izena emateko formularioaren bidez edo helbide honetara mezu bat bidaliz: cosplay@mangamore.net

Nolanahi ere, fitxategiak (erreferentzia-irudia, dosierra edo bideoa/audioa) gehienez ere izena emateko azken egun eta ordura arte entregatu ahal izango dira.

- **Antolaketa-lana errazteko, entregatzen diren fitxategiak lehiaketan parte hartzen duen taldeari edo pertsonari aurkezteko erabiliko den izenarekin izendatzea eskatzen da.**
- **Datu pertsonalen bat, informazioa edota emandako fitxategiren bat aldatu nahi izanez gero, izena emateko azken egunean eta orduan egin ahal izango dira aldaketak.**
- Informaziorik ez badago edo argi ez badago cosplay@mangamore.net helbide elektronikoaren bidez eskatuko da.

3.4. 18 urtetik beherako parte-hartzaileei dagokienez, cosplay@mangamore.net helbide elektronikora bidali beharko da aitak, amak edo legezko tutoreak bete eta sinatutako eranskinean ematen den baimena. Antolaketa-arazoak direla-eta, erakundeak behar den komunikazioa izango du harekin.

Baimen hori gehienez ere izena emateko azken egunera arte bidali ahal izango da (egun hori barne).

4. EPAIMAHAIARI ETA SARIEI BURUZ

4.1. Epaimahaiaren balorazio-irizpidea honako hau izango da:

- **Cosplay Lehiaketan, jantzia** (gehienez 6 puntu) irizpide hauen arabera baloratuko da:
 - ✓ **Zehaztasuna (%30): parte-hartzailearen jantziaren eta osagarrien** (ileordea, osagarriak) **eta hautatutako pertsonaiaren arteko antzekotasun fisikoa baloratuko da.** Pertsonaiaren erreferentziazko irudirik ikusten ez bada, zehaztasuna ez da baloratuko. Balorazio horretan, ez dira kontuan hartuko parte-hartzaileen gorputzaren aniztasuna, azalaren kolorea, adina, generoa eta abar.
 - ✓ **Jantzigintza (%30): jantziaren kalitate teknikoa** baloratuko da.

Era berean, **antzezipena** baloratuko da (gehienez 4 puntu), irizpide hauek kontuan hartuta:

- ✓ **Antzezipena (%20): parte-hartzaileak mozarrotuta doanaren pertsonaia antzezte**a baloratuko da, haren izaerari eta nortasunari leial izanik.
- ✓ **Eszenaratzea (%20): antzezipenaren kalitatea eta parte-hartzaileak agertokian duen jarrera** baloratuko dira. Atrezzoaren erabilera ez da derrigorrezkoa baina erabiliz gero epaimahaiak erabakitzen duen heinean baloratuko da.

Antzezipen Aipamen Bereziari dagokionez, epaimahaiaren iritziz nabarmentzen den antzezipen bati eman ahal izango zaio; banakako eta taldeko kategorietan sarituak direnek ezin izango dute hori aukeratu.

- **Cosplay Pasarela Lehiaketan**, epaimahaiak **irizpide** hauek hartuko ditu kontuan (10 puntu gehienez):
 - ✓ **Zehaztasuna (%40): parte-hartzailearen jantziaren eta osagarrien** (ileordea, osagarriak) eta **hautatutako pertsonaiaren arteko antzekotasun fisikoa baloratuko** da. Pertsonaiaren erreferentziako irudirik ikusten ez bada, zehaztasuna ez da baloratuko.
 - ✓ **Jantzigintza (%40): jantziaren kalitate teknikoa** baloratuko da.
 - ✓ **Eszenaratzea (%20): parte-hartzaileak eszenatokian desfilatzean eta antzezpen edo pose laburrean duen jarrera baloratuko** da. Horretarako, pertsonaiaren izaera eta nortasuna hartuko dira kontuan.

4.2. Berdinketa teknikoa gertatuz gero, epaimahaiak parte-hartzaileen cosplay-ak berrikusi ahal izango ditu, jantziari buruzko xehetasun gehiago jasotzeko. Epaimahaiak oinarri hauetan jaso ez diren **berdinketa hausteko irizpide objektiboei** heldu ahal izango die

4.3. Epaimahaiak zuzenean aukeratuko ditu saritutako lehiakideak.

4.4. Sariak hurrengoak dira:

- **Cosplay Lehiaketan:**

Banakako 1. Cosplay saria: 200 € + domina + diploma + opariak
+ Afaria edo bazkaria 2 lagunentzat Antxeta Taberna Taberuren kortesiaz

Banakako 2. Cosplay saria: 150 € + domina + diploma + opariak

Taldeko 1. Cosplay saria: 300 € + dominak + diploma + opariak

Taldeko 2. Cosplay saria: 250 € + dominak + diploma + opariak

Bigarren sariak emateko, gutxienez 4 parte-hartzaile indibidualek eta/edo 4 taldek parte hartu beharko dute.

Kategoria batean izen-emate bakarra egonez gero, antolatzaileek kategorien arabera banaketa ezabatuko dute eta lehiakide guztiek honako 3 sari hauek eskuratu ahal izango dituzte:

Cosplayko 1. saria: 250 € + domina(k) + diploma + opariak

Cosplayko 2. saria: 200 € + domina(k) + diploma + opariak

Cosplayko 3. saria: 150 € + diploma + opariak

Bigarren saria eman ahal izateko, gutxienez 4 parte-hartzailek parte hartu beharko dute, banakakoen eta taldeen artean, eta 6k hirugarrenarentzat.

Beste aldetik, **Antzezpen Aipamen Berezia egongo da, 50€ko diru-saria eta sari-opariak dituena.** Banakako eta taldeko parte-hartzaile guztiek izango dute sari hori jasotzeko aukera, aipatutako bi kategorietan saria jasotzen dutenek izan ezik.

- **Cosplay Pasarela Lehiaketan:**

Cosmakerren 1. saria: 125 € + domina + diploma + opariak

Cosmakerren 2. saria: 100 € + domina + diploma + opariak

Cosmakerren 3. saria: 75 € + diploma + opariak + domina

Cosmodelen 1. saria: 50 € + domina + diploma + opariak

Cosmodelen 2. saria: 30 € + domina + opariak

Cosmodelen 3. saria: 20 € + opariak

Bigarren sariak eman ahal izateko, kategoria bakoitzean gutxienez 4 banakako parte-hartzailek parte hartu beharko dute, eta 6 hirugarrenek.

Kategoria bakoitzean arestian aipatutako sari bat jasotzeko aukeraz gain, **txikitatik cosplay-arekiko zaletasuna sustatzeko, 12 urtetik beherako parte-hartzaileek "Chibi Cosplay" Aipamen Berezia eta sari-opariak jaso ahal izango dituzte.**

Bi lehiaketetan, opariei dagokienez, merchandising-a, elikagaiak, mangak, liburuak, Artist Alley-ko artisten sormen-lanak eta abar izan daitezke.

4.5. Epaimahaiak hala iritziz gero, **sariak eman gabe utzi ahal izango dira, baldin eta behar beste parte-hartzaile ez badago edo maila ez bada gutxienerako batera iristen.**

Halaber, **Aipamen Bereziak** eman ahal izango dituzte beren diskreziopean, eta **edozein parte-hartzailek jaso ahal izango du**, baita banakako parte-hartzaileek edo saritutako taldeek ere.

4.6. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da.

4.7. Ekitaldia amaitutakoan, antolatzaileek harremanetan jarriko dira diru sariak jasotzeko posta elektronikoko bat bidaliz edo telefonoz.

Sarituak adingabeak badira, izapidea aitarekin, amarekin edo legezko tutorearekin egingo da.

5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, lehiaketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolatzaileek eta epaimahaiak.

5.2. Antolatzaileek errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du.

5.3. **Debekatuta dago bannerrak edo edozein motatako publizitate-propaganda** erabiltzea emanaldiaren bideoan, atrezoan, cosplay-ko edozein elementutan edo pertsonaren gainean, antolatzaileen baimenik gabe.

5.4. **Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar irudi-eskubidea lagatzea.** Parte-hartzaileak, beraz, lehiaketan parte hartzeko irudi-eskubideak lagatzen ditu. Lehiakideak berariaz baimena ematen dio Amorebieta-Etxanoko Udalarari irudi, argazki, bideo, material, grafiko eta abar guztiak (aurrerantzean, "Irudiak") edo horien zati batzuk, lagatzaileak edo haren ordezkariak, Mangamore 2025ko Cosplay eta Pasarela Cosplay lehiaketaren esparruan Amorebieta-Etxanoko Udalak antolatua, atzemateko, argitaratzeko, erreproduzitzeko eta erabiltzeko, barneko zein kanpoko hainbat hedabidetan (egunkariak, aldizkariak, telebista-programak, web-orria, sare sozialak).

Grabatutako edukia eta lagatzailearen edo publizitate-arrazoiekin irudikatutakoaren irudiak erabiltzeko baimen hori Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan xedatutakoaren babesean ematen da.

Baimen hori ez da mugatzen denbora-eremu edo lurralde-eremu jakin batera, eta, beraz, Amorebieta-Etxanoko Udalak munduko herrialde guztietan erabili ahal izango ditu irudi horiek, edo horien zati bat, betiere izaera sozialarekin eta ez komertzialarekin, inolako muga geografikorik gabe.

Baimen hau doakoa da, eta ez dago konpentsazio ekonomikorik lagatzaileari edo haren ordezkariari. Lagatzaileak edo haren ordezkariak berariaz salbuesten du Amorebieta-Etxanoko Udala irudietako hirugarren batek egin dezakeen edozein erabileraren aurkako erantzukizunetik.

- 5.5. Lehiaketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez tratatuko dira,** Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. **Datuak lehiaketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako. Pribatutasun-politikari** buruzko informazio gehiago 2. eranskinean dago.
- 5.6. Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar. Arau bat edo batzuk ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekar dezake. Gainera, larritasunaren arabera, zigorra ezarri ahal izango da Mangamoreren etorkizuneko edizioei begira.**

HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzak, iradokizunak eta abar izanez gero, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu cosplay@mangamore.net helbidera.



1. ERANSKINA



BAIMENA COSPLAY ETA PASARELA COSPLAY LEHIAKETAK

_____ Jaun/Andreak, adinez nagusia,
_____ NAN/AIZ/pasaporte zenbakia indarrean duenak, _____ telefono
zenbakia duenak, eta _____ helbide elektronikoa
duenak, _____ -(r)en aita, ama edo tutorea izanik
ADIERAZTEN du:

Cosplay eta Pasarela Cosplay lehiaketan oinarriak irakurri dituela eta bere seme/alaba/apopiloari baimena ematen diola Cosplay edo Pasarela Cosplay lehiaketan parte hartzeko. Lehiaketa hori urriaren urriaren 11n (larunbata) 17:30etik aurrera ospatuko da Zelaieta Zentroko frontoian, Mangamore (Amorebieta-Etxanoko Udalak antolatutako japoniar kulturari buruzko jardunaldiak) 2025ko programazioaren barruan.

Era berean, berariaz baimena ematen diot Amorebieta-Etxanoko Udalari lehiaketan zehar egindako nire semea, alaba edo apopiloaren irudi, argazki, bideo, material, grafiko eta abar guztiak, edo zati bat, barne zein kanpoko medioetan (egunkariak, aldizkariak, telebista-programak, web-orria, sare sozialak, etab.) jaso, argitaratu, erreproduzitu eta erabili ahal izateko. Irudi horiek ez dira inola ere erabiliko merkataritza-helburuetarako.

_____ (e)n, 2025ko _____ (a)ren ____ a.

Sinadura:

2. ERANSKINA

PRIBATUTASUN-POLITIKA

Tratamenduaren arduraduna	AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA-ETXANO IFK/CIF: P4800300H Herriko Plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Telefonoa: 946 300 650
DBO Harremanetarako	dbo-dpd@amorebieta.eus
Helburua	Udal liburutegiaren kudeaketa Haur eta gazte zerbitzuaren kudeaketa Zine eta ikuskizunen zerbitzuaren kudeaketa Musika Eskola zerbitzuaren kudeaketa Kultura eta kirol programen zerbitzuaren kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa	DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikatzekoa den lege-betebeharra betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.e) Interes publikoko jardueran edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoetan jardutean burututako egitekoa betetzeko beharrezkoa den tratamendua. DBEO: 6.1.a) Interesdunaren baiezkua (argazkiak sare sozialetan edo udalaren webgunean argitaratzeko). Kasu bakoitzean eskatzen den informazioa ahalik eta txikiena eta Udalak kudeaketa edo izapidea gauzatzeko behar-beharrezkoa duena baino ez da izango.
Pertsona/Entitate hartzaileak /Nazioarteko transferentziak	Bai aurreikusten dira norberaren datuen transferentziak. Bai aurreikusten dira datuen nazioarteko transferentziak AEBra, argazkiak sare sozialetan argitaratuz gero.
Eskubideen erabilera	Bidezkoa gertatzen denean, datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, aurka joan, edota eramagarri izateko eskatu ahalko da, bai eta tratamendua mugatzeko, eta soilik automatizatuak diren erabakien xede ez izateko ere, pribatutasun-politikan ezarrita dagoen prozeduraren bidez gure webgunean informazio gehigarria zuzenduta ZERBITzuenKATalogo (amorebieta-etxano.eus) .
Informazio gehigarria	Udal honek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduen gaineko informazio gehigarria eskuratu ahal duzu beraren webgunean kokatuta dagoen Datuen babesaren atalean: https://amorebieta-etxano.eus/es/politica-de-privacidad/